

HARAN ATLANTIKOAK

BIZKAIA



B•11 “Río Mayor” ibaia— —“Las Tobas”—Akirtza

Akirtza, Las Tobas eta “Río Mayor” errekek aldapa handiko sakan estuen eremu bat zeharkatzen dute Trianoko mendien inguruan. Paisaia oso aldatuta dago; izan ere, mendi horiek Bizkaiko meatzaritzaren sorleku izan ziren, eta jarduera horrek eragin handia izan zuen ingurumenean, paisaia argi eta garbi ikus daitekeenez.

Espazio horretan gizakiak eragin duen eraldakuntza eta abiarazi diren leheneratze—prozesuak Peñas Negraseko Ingurumen Interpretazioko Zentroan azter daitezke.

Sakan—hondo babestuetan mikroklima itzaltsua, beroa eta hezea sortzen da eta gure latitudeetan benetan bakarrak diren garo subtropikalen espezie batzuk garatzen dira.



B•12 Nerbioi ibaiaren ezkerraldeko kostaldeko mendiak eta muinoak

Espazio honen katalogazioa beharrezkoa da, alde batetik naturari eta paisaiari dagokienez dituen balioengatik eta, bestetik, inguruaren kontserbazioa eta leheneratzea sustatzeko premiarengatik, gizakiaren presentzia handia duen eta eragin urbanistiko garrantzitsuak jasaten dituen gunea baita. Itsasertzeko lerroan bertan kokaturiko mendi txikien multzo honek (Lucero muturra, Serantes, San Mames) jatorrizko landare—estalkirik ez du ia kontserbatzen, artzaintzaren, industria—jardueraren, obra publikoen eta inguruko aisialdiko jardueraren (Arena hondartza) eraginez.

Hala eta guztiz ere, eremu horrek flora eta faunako komunitate garrantzitsu bat mantentzen du. Komuniate hori bereziki interesgarria da bertan bizi diren Mediterraneo espezieengatik, esate baterako, gure Erkidegoko Kantauriko isurialdean dagoen abarizti bakarra edo soro—muxarra.

B•13 Sollube—Garbolako sakanak

Duela zenbait mendetatik Sollube eta Garbolako mendiak biziki ustiatu dituzte inguruko landa—guneetako abeltzainek, larre—eremu gisa. Azken hamarkadetan zelaiak oihaneztatu egin dira

berrito eta, beraz, gaur egun hazkuntza azkarreko baso—espezieek betetzen dute ia azalera guztia, itsasorantz doazen erreka eta uhar ugarietaraino bertaraino iritsiz. Ibarbide hauek babestea oso garrantzitsua da, jatorrizko floraren azken aleak gordetzen baitituzte, bereziki glaziar aurreko garaien lekuko direnak eta klima beroei dagozkienak.